

IDOIA MENDIA

Bazen garai bat, non euskara gune publiko guztietan debekatuta zegoen eta, zer esanik ez, hezkuntza sisteman. Harrezkero, Euskal Sozialistentzat hizkuntza eskubideak eta askatasuna beti banaezinak izan dira: euskarak eta askatasunak eskutik behar dute joan, elkarbizitza sendoa lortzeko guztion artean.

Euskal Sozialistok beti defendatu dugu euskara erabiltzeko eskubidea, eremu guztietan. Parte hartu izan dugu euskararen inguruan hartu diren akordio zabal guztietan, Estatutuan bertan hasita; izan ere, hor dago euskara hizkuntza ofizial legez onartzen den baieztapena.

Halaber, azken urteetan, herri honetako euskalduntze politiken protagonista aktiboak izan gara. Gu izan ginen euskara ikasketak eginda zituzten pertsonak hizkuntza ziurtagirien beharraz salbuetsi genituenak. Gu izan ginen euskararen ezagutza tituluak baliozkotu genituenak eta hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bate-ratuarekin parekatu genituenak. Gu izan ginen arlo pribatuan hizkuntza arrazoiengatik ezarritako isunak kendu genituenak.

Eta hezkuntzan euskararen erabilera arautzerakoan, hor ere egon gara Sozialistok. Beti izan gara euskararen sustapenaren aldeko. Beti. Baina, era berean, askatasunaren zaleak ere bagara. Hiritarraren bizitzako arlo guztietan gara askatasunaren aldekoak, baita hizkuntzaren erabileran ere. Esku batean hartzen dugu euskararen sustapena, eta bestean, hiritarraren askatasuna, bien arteko arrazoizko oreka aldarrikatuz. Gehiegikeriak ez ditugu maite, pertsona behartzea ez zaigu gustatzen. Euskarari babes, hiritarrari askatasuna.

Jakin badakigu Euskadin bi hizkuntza ditugula, biak ofizialak. Egia da biak ez daudela

EUSKARA ASKATASUNEAN

egoera berdinean: batetik, gaztelania da guztiok ezagutzen duguna, eta aldiz, euskara, hiritarren parte batek baino ez du ezagutzen eta erabiltzen; baina horrek ez dio, inola ere, bere izaera gutxitzen.

Euskararen eta euskal hiztunen egoerek, eurek, begiramen berezi bat eskatzen dute. Begiramen eta trataera berezi bat botere publikoen aldetik. Gure helburua ez da baldintzarik gabeko euskalduntzea. Alderantziz. Euskararen sustapen adostu, erakargarri eta kalitatezko bat. Herri honetako pluraltasuna eta aniztasun linguistikoa kontuan izan behar duen euskalduntzea, alegia.

1982ko Euskararen Legearen izaeran, koofizialtasuna eta adostasuna zeuden. Euskara ez jakiteagatik, hiritarren eskubideak ez zirela urratuko bermatzen zuen lege honek. Baina Euskadiko erakundeek hainbatetan, eta azken urteotan bereziki, apurtu nahi izan dute legeak ezarritako berme eta adostasuna. Gogoan dut oraindik ere 2003ko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuak isunak ezartzen zituela arlo pribatuan euskara ez erabiltzeagatik. Edota EAJ eta Bilduren artean adostutako Udal Legea, zeinak udalei aukera ematen baitzien bi hizkuntza ofizialetatik bat aukeratzea.

Euskarak eta euskal hiztunek dituzten ahu-leziak laguntza eskatzen dute aurrera egin ahal izateko. Sustapena da egoera hori gainditzeko

bidea. Sustapena eta laguntza. Baina Euskal Sozialistok ez dugu sekula sustapena derrigorrezko bide bihurtuko. Nahi duenari lagundu, baina inoiz ez hiritarra behartu. Hori da gure hizkuntza politikaren oinarria.

Aniztasun desberdinak ditu euskal gizarteak: ideologia mailan, bizitza moduak erabakitzerakoan, eta baita ere hizkuntza erabiltzerakoan. Aniztasun horiek guztiak behar ditugu onartu, eta askatasunez eta tolerantziaz behar dugu elkarbizitza gauzatu. Izan ere, Euskadi elebiduna da, hizkuntza desberdinak erabiltzen dituztelako hiritarrek: euskara eta gaztelania erabiltzen dituzte, eta erabiltzen jarraitu nahi dute.

Baina euskara ez da inoren menpeko. Ez da inor euskararen jabe, guztion ondarea da. Eta, era berean, ez dago mota bateko ideologiari lotua. Euskarak ez dauka ideologiarik, hiritarra da ideologia duena.

Eta horregatik, gizarte demokratiko batean, eskubidea egiazko bihurtzeko arautua behar du egon, arauen bidez gauzatzen delako eskubidea, baina gainera eskubide bakoitza beste eskubideen artean garatu behar delako. Eskubide batek ezin du beste eskubide bat ukatu. Eta ez da beti erraza izaten eskubideen arteko talkan, ezinbesteko talkan, gainera, arrazoizko oreka bilatzea. Norbaitek eskubide bat (eskubide hori dena delakoa izanik) era absolutuan gauzatzea eskatzen duenean, eskubideen arteko oreka apurtzen du.

Euskara erabiltzeko eskubidea du edozein hiritarrek, baina era berean, hizkuntza arrazoi dela inor ez baztertzeko eskubidea ere badugu. Eskubide bi horiek agindu bihurtzen dira botere publikoentzat: euskararen erabilera bermatu behar dute erakunde publikoek; bai eta hizkuntzaren zioz inor ez baztertzea ere.

Gizarte demokratiko batean desoreka horiek eztabaida publiko eta adostasunez konpontzen dira naiz eta, batzuetan, behin-behineko adostasunak izan. Eta euskararen inguruan, Euskal Sozialistok adostasunik zabalenak lortzeko ahalegin handiak egin ditugu beti.

Eta bide horretan jarraitu nahi dugu. Euskara sustatu nahi dugu, baina ez dugu baztertu nahi euskara ez dakien hiritarra. Azken 30 urtetan euskal gizarteak eta erakunde publikoek ahalegin handia egin dute euskara sustatzeko, eta Sozialistok ia beti izan gara grina horren bidelagun.

Gaur, iragandako bidea aztertzea planteatzen dugu; guztion artean, planteamendu absolutu eta maximalistak bazterrean utziz, lasaitasunez eta akordioa lortzeko borondatearekin.

Eta eztabaidarako oinarri gisa, proposamen batzuk egin nahi nituzke:

1. Euskaraz egiten diren ekintza kultural guztien laguntza publikoei eustea. Baina Euskadin kultura ekimenak bi hizkuntzatan egiten direla onartuta eta gaztelaniaz egiten direnek ere laguntza behar dutela aldarrikatuta (eta hori ez da beti horrela izan).

2. EITB komunikabide taldearen erreforma, informazio anitza eta balio demokratikoak sustatzea helburutzat hartuta. Eta erreforma horren barruan, ETB-1en azterketa sakona, bere izen ona euskal hitzunen artean beharko lukeen ospea lortzeko.

3. Desberdintasunei eta aniztasunei so egiten dien hizkuntza politika. Hezkuntza sisteman euskararen etorkizuna bermatzen duena, ezagutzen ez dutenak erakarriz, baina bakoitzaren askatasuna zainduz.

4. Euskal kulturaren egitasmo demokratikoa garatu, aniztasuna eta elebitasuna onartuz eta babestuz.

5. Zenbaitetan galdu izan den mami demokratikoa berreskuratu. Euskara eta euskal kultura hiritar demokratikoen lanabes izan daitezzen, hiritarren sormen askea lehenetsiz, euskara eta gurari identitarioak bereziz.

6. Eta azkenik, Administrazioan lanpostu bat lortzeko hizkuntza eskakizunak birpentsatzea. Langile bakoitzari eskatu behar zaiolako bere lanpostuak benetan behar duen hizkuntza eskakizuna; eta, horrekin bat, Administrazioak duen giza kapitala ondo erabiltzea beharrezkoa delako egun, ezin baitugu onartu baliozko profesionalak galtzea, bere lanetarako behar ez duen euskara maila eskatzen zaielako.

luz denetarik entzun behar izan nuen, eztabaida hau mahaigaineratzeagatik. Baina, badirudi, behin hauteskundeak ospatuta, adostasun zabala loratzen ari dela Euskadin gai honi ekiteko, behin-goz. Aprobetxatu dezagun. 2018 hauteskunderik gabeko urtea izango da, eta, beraz, aukera ezin hobea daukagu euskal gizarteak behar dituen erreformak aurrera ateratzeko.

Euskararen etorkizuna hiritarrak elkartzeko baliagarri izatean datza. Euskarak guztion helburu izan behar du, euskal hitzunenena, baita euskara hitz egiten ez dutenena ere.

Euskararen giza proiektuak gizartea banatzen badu, hiritar batzuk beste batzuen aurretik jartzen baditu, ez dago etorkizunik. Azken finean, euskara guztion ondarea da, eta guztion esku dago horren etorkizuna. Zenbat eta adostasun zabalagoa izan, orduan eta berme handiagoa etorkizunerako.